

ez zuten ERANTZUN

OIER
SANTOS

n a r r a t i b a e

ez zuten

EZ ZUTEN ERANTZUN

Narratiba, 76

Obra honen edozein erreproduzio modu, banaketa, komunikazio publiko edo aldaketa egiteko, nahitaezkoa da jabeen baimena, legeak aurrez ikusitako salbuespenezko kasuetan salbu. Obra honen zatiren bat fotokopiatu edo eskaneatu nahi baduzu, jo CEDROra (Centro Español de Derechos Reprográficos, www.conlicencia.com; 91 702 19 70 / 93 272 04 47).

Azala eta liburuaren diseinua:

Iturri

Maketazia:

Erein

© Oier Santos

© EREIN. Donostia 2012

ISBN: 978-84-9746-751-3

L. G.: SS-1374/2012

EREIN Argitaletxea. Tolosa Etorbidea 107

20018 Donostia

T 943 218 300 F 943 218 311

e-mail: erein@erein.com

www.erein.com

Inprimatzailea: Itxaropena, S. A.

Araba kalea, 45. 20800 Zarautz

T 943 835 008 F 943 130 822

e-mail: itxaropena@itxaropena.net

www.itxaropena.net

Oier Santos

EZ ZUTEN ERANTZUN



2000-IX-25, ASTELEHENA
(11 egun lehenago)

Goizeko 8:00ak ziren, eta Danel martxa azkarrean Gzihoan unibertsitate aldera. Bere unibertsitate garaiko lehen eguna zen, eta lehen egunean berandu iristea ez zen hasiera ona unibertsitatean ezagunik ez zuen pertsonarentzat. Autobus geltokitik bere fakultatera oinez 35-40 minutuko bidea zegoela esan zioten; hala ere, martxa azkarrean ordu erdian iristeko esperantza zuen. Ordulariari behin eta berriro begiratu, eta denbora bere martxa baino azkarrago zihoala konturatu zen. Urduritasunak eta hartutako martxak izerdi hotza eragin zion kopetan. 8:37 ziren zegoeneko, eta paperezko zapi bat atera behar izan zuen, izerdia kopetatik aurpegi guztira zabaldu baitzitzaion. Ahal bezala lehortzen saiatu zen, baina zapia blai-blai utzi ondoren, konturatu zen aurpegiak bere horretan jarraitzen zuela, hots, larruazalak, segundo gutxiren buruan, bere hezetasuna berreskuratzen zuen.

Aurkezpena goizeko 8:30ean hasten zela zioen papera zuen esku artean, eta, aldi berean, ordulariak 8:55 zirela

esaten zion modu iraingarrian. Ordu horretan, Gasteizko Farmazia fakultatea jartzen zuen kartela ikusi zuen eraikin handi baten ate ondoan. Leiho baten isla aprobe txatuz, zer itxura zuen ikusteko aukera izan zuen. Ilea erabat sakabaturik zuen, aurpegia kolore gorrixka bat, kaleko hotzaren eta bere berotasunaren arteko kontrastearen ondorioz. Aldi berean, izerdiak eragiten zuen distira nabarmena zela konturatu zen. Aurpegia erabat lehortu ondoren ohartu zen besapeak *Camachoren* estilo berberean zermatzala. Momentu batez pentsatu zuen urteetan eraman beharko lukeen *Camacho* ezizena ez zela oso atsegina izango bera bezalako mutil txukunarentzat. Ondorioz, eskuan zeraman jaka janztea erabaki zuen, nahiz eta eraikinean bero zikin eta itsaskorra nabaritu atetik sartu bezain laster.

Behingoz, dena bere lekuan zegoela ziurtatzeko, leihora begiratu, eta bere buruak gutxieneko itxura bazuela ikusi zuen. Atea irekitzera zihoan unean bertan konturatu zen patrikan zeraman mugikorra piztuta zegoela, eta atzera jo zuen. Segapotoa itzali, ez zuen inolako ezizenik jasan nahi lehen egunean egindako akats batengatik, eta behingoz atea irekitzera abiatu zen. Ordulariari azkenekoz begiratu, 8:58 ziren, eta ateko heldulekuari heldu zion. Atea irekitzeko momentu berean sekulako jendetza ateratzen hasi zen. “Ongi. Hobeto. Ederki. Bikain” esan zion bere buruari, aurkezpena bukatu zela konturatu zen. Bilera horretan esandakoari buruz kuriositatea sentitu zuen, baina bere buruari hori gutxienekoa zela azaltzen saiatu zen.

Jende mordo horretan bakarrik zihoan beste mutil luze eta mehar bati besoa emeki ukitu, eta galdetzeko prestatu zen.

–Bukatu al da aurkezpena?

–Bai, noski –erantzun zion zakar xamar.

–A! Eta orain beste zerbait al dago? –zalantzez beterik Danelek.

Mutila kolpetik geratu zen, eta deseroso zegoeneko jarrera egokituz erantzun zion:

–Beste zeozer? Goizeko 7:00etan altxarazi naute aurkezpen ziztrin hau entzuteko, eta gainera, klaseak etzi arte ez direla hasiko esan dute, ez al duzu entzun bileran?

Momentu horretan, galdera egiteaz damu zen, izan ere, errazagoa izango litzateke jendetzari itsu-itsu jarraitzea, modu horretara berehala konturatuko bailitzateke ez zegoela bestelako ekintzarik. Barkamena eskatzeko sentsazioak aginduta, azalpen bat ematen hasi zitzaion.

–Ez! Ez naiz garaiz iritsi eta ezin izan dut... –erdizka utzi zuen beste mutil luze eta meharrak, bizkarra eman eta aterantz joan baitzen.

Pixkanaka jendetza desagertzen ari zela konturatu zen, bakarrik geratu zen arte. Ikasleen egoitzara joateko garaia heldu zen. Izan ere, bere gurasoak autoan arropa eta bestelako tramankuluak ekartzera etorriko ziren. Berak goizean goiz hartu behar izan zuen autobusa Gorlizen, bi orduko bidea baitzuen Gasteizeraino. Unibertsitatean egin beharrekoak egin ondoren, gurasoei dei bat eginez gero, haiek, beharrezkoak zituen arropa, janaria, musika

entzuteko aparatua, bizikleta eta bestelakoak ekarriko zizkioten.

Poliki-poliki, urtean zehar hainbatetan egin beharreko bidea hartu zuen, ikasle egoitzara iristeko inongo presarik gabe. Bere gurasoak iristeko ordu bete zuela pentsatu zuen, eta, hortaz, ez zuen ikasle egoitzara iristea beste zereginik.

Ordu erdi eskasean iritsi zen bere bizileku berrira, eta beste ordu erdia itxaron beharko zuela kalkulatu zuen. Ordulariak 10:18 markatzen zuenean begiratu zuen Danelek bere eskumuturra. 11:00ak jo aurretik iritsiko ziren esperantzarekin, egoitzaren sarreran zeuden aldizkarietako bat hartu zuen denbora-pasa. Ekologia mugimendu berriaren indarra azpimarratzen zuen artikulu interesgarri bat bukatu zuenean, 11:13 zirela ohartu zen. Ordu bete zeraman kasik aldizkaria irakurtzen, eta bere gurasoak oraindik azaldu gabe.

11:25ean azaldu zen bere amaren aurpegi irribarre-tsua sarreraren atetik. Azken 12 minutu haiek aurreko 55 minutuak baino askoz ere luzeagoak egin zitzaizkion. Amarengana haserre eta ganora gabe gerturatu zen.

–Zer moduz Danel? –galdetu zion, Danelen aipamenari itxaron gabe.

–Ba, gaizki –doinu itsusian.

–Zergatik gaizki, seme?

–Ez naiz aurkezpenera garaiz iritsi. Gainera, sekulako berotua hartu dut garaiz iristeko esperantzarekin. Eta, orain, ordu betetik gora egon naiz zuen esperoan! Zertan aritu zarete? –erabat haserretuta.

–Badakizu nola den aita, bizikleta sartzeko sekulako komeriak izan ditu autoa ez markatzeko. Gainera, hona iristeko bidea aherentzi egin zaio.

Gauzak autotik atera eta bere gelara igotzen joan zitzaien goiza; hiri berri horretan, Gasteizen, igarotako lehen eguna modu egokian bukatzea zaila izango zela pentsatu zuen. Duxa goxo baten ostean, gurasoekin bazkaltzera joan zen Danel. Bazkal ondotik gurasoak etxera itzuliko ziren, eta berak arratsalde osoa izango zuen goizean narrastutakoa hobetzeko.

Goizeko 8:25 ziren, Ela, Nikole eta Jaitz hurrenez hurren eseriak zeuden Grezia garaiko teatroen itxurako gela handi batean. Leioako enpresaritzaren fakultateko *aula magna* edo areto nagusian zeuden. Jendea bultzaka eta ezjakintasun kutsu batekin sartzen zen aurkezpena egingo zen gunera. Denak gora begira jarri eta eskaileretan gora abiatzen ziren, jubilatutako trenean sartzeko erakusten duten grina berarekin, baina konturatu ordurako, goialdeko eserleku guztiak jendez gainezka zeuden. Ondorioz, gora eta behera zebilen gazte andana nabarmentzen zen, itxura dotoreko gizon bat atletik sartu, atea itxi eta mahai nagusira abiatzen ari zen momentuan.

–Egunon! –esan zuen ahots ilun eta ozen batez–. Joan zaitezte, mesedez, hemen azpiko eserlekuak betetzen,

ez baitut inor jaten –eskuan zituen karpeta eta bestelakoak mahaian utzi eta gazteei begiratu zien–. Hasi egingo gara. Ea azkar egiten dugun aurkezpena, eta, egun atsegina atera dela aprobetxatuz, kalera lehenbailehen irteten garen.

Elak Nikoleri entzundakoa entzun eta ikusitakoa ikusi ondoren, neskatiaren belarrira gerturatu eta era goxo batean aipatu zion.

–Ni bai joango nintzatekeela berarekin kalera edo berak nahi duen lekura, ezta? Ondo dago gizona ezta, Nikole?

–Bai neska, baina orain unibertsitatean gaude, eta ohitu egin beharko duzu hainbeste mutil eta horren ederrak ikustera. Gainera, zuk kexatzeko aukerarik ez duzu, Danel bezalako potxolorik oraindik ez dut ikusi! –ingurura norbait bilatzeko itxura eginez erantzun zion Nikolek.

–Egia da, arrazoi duzu. Nola egongo da Danel gai-xoa? Goizean goiz joan behar izan du, aurkezpena 8:30ean zuten beraiek ere, eta autobusa goizeko 6:00etan hartu behar izan du. Ez dakit, aste osoa berarekin egon gabe...

–Shhh! –moztu zion zakar Jaitzek. Nikoleren sorbaldatik azaldu zen bere aurpegia isiltzeko keinua eginez, kopetako zimurrak nabarmentzen zitzaizkiolarik.

Kolpetik, aipamen hori egitera eramanez irakasleari arreta jartzen saiatu zen, begirada, hala ere, urrunean galdua zuen, eta begiak geldi-geldi. Artean, aurkezpena egiten ari zen 35 urte inguruko gazte itxurako gizonak hitz egiten jarraitzen zuen.

–Badakizue hau ez dela institutua, eta hemen zuek antolatu behar duzuela egunerokoa. Unibertsitatean inork

ez dizue ezer esango egunero lanik egiten ez baduzue, baina hor dago koxka! Azterketa garaian lau hilabete horietan egin beharrekoa egiten saiatzen bazarete, alferrikako lana izango zaizue, ez baituzue ez azterketa gaindituko, ez ikasiko, ezta lana modu egokian egiten ikasiko ere. Beraz, nire gomendioa hori da: egunero lan egiteak asko lagunduko dizue karrera hau aurrera ateratzen, baina baita etorkizunean enpresaritzatza munduan zuen lekua bilatzen ere.

Elak momentu horretan irakasleak esandakoa urteetan gogoratu behar zuela proposatu zion bere buruari, baina pentsamendu hori ibaietan korrontearen aurka doazen arrainen jauzia balitz bezala pasa zitzaion burmuinetik, eta Danelen inguruko gogoeta berehala gaineratu zitzaion.

Konturatu ordurako, irakasleak bere hitzaldia bukatu zuela ohartu zen Ela. Antzeman zuen, gelan garaitzen zen isiltasunaren arabera, irakasleak galderak egiteko aukera luzatu ziela, eta, ohikoa den legez, ez zuen inork txintik ere esan. Instant horretan bertan, aterako bidea hartu zuen irakasleak, eta etzi goizeko 8:30ean elkar ikusiko zutela esan zien ozenki.

Behin aurkezpena bukatu zela, ardiak soroetatik ateratzen diren moduan irten ziren gela handi hartatik, eta fakultateko atera abiatu ziren. Kanean, goizeko eguzki izpi goxo baina zitalak sentitu zituzten euren begi zein azalean. Fakultate kanpoko plaza jendez gainezka zegoen, eta denak talde txikietan banaturik zeudela, urduritasun eta zirrarez beteriko elkarrizketak entzuten ziren.

–Niri lagun batek esan dit unibertsitateko ikasleak ostegunetan ateratzen direla! –ez oso urrun.

Bestetik, gazte batek, oihuka:

–Ikusi duzue gu baino bi ilara beherago zegoen neska puska? Uste dut Elorrixokoa dela eta behin parranda batean hitz egiten egon ginela!

Ela, Jaitz eta Nikolek ere, beraien elkarrizketa zuten. Aurkezpena egin zuen irakaslearen ingurukoa, berandu iritsi zen mutil katxarroarena, Jaitzen ondoan zegoen beste mutilaren begien zirrarena, eta abar luze bat.

Azken gai horretan buru-belarri zeuden horretan agertu zen Garazi, belarri bien tarte osoki zeharkatzen zuen irribarre batekin.

–Zer moduz Garazi? –galdetu zion erabat asaldaturik Elak.

–Ikaragarri! Jesukriston mutilak daude! Aurkezpena egin duen irakaslea ere... –esaten zuen burua hara eta hona zebilkiola eta ahoan aurkitzen ez zituen hitzak pila-tzen zitzaizkiola.

Orduantxe Ela eta Nikoleren barre algara entzutetsua sumatu zuten alboko guztiek. Jaitzek keinu aspertu batean aipatu zuen:

–Neska guztiak berdinak zarete! George Clooneyren itxurako memelo bat jarri eta lerdea darizuela jartzen zarete. Bada, jakin ezazue, neska askoz ere ederragoak ikusi ditudala 10 minutu hauetan nire bizitza osoan baino –zirikatzeko asmoz–. Eta, gainera, beti gai berdinarekin gabiltza! Ez al duzue beste gairik?

Azkeneko hitza bukatu aurretik, hiru neskek gauza bera esan zuten aho batez, bihurri aurpegiarekin.

–Ez!

–Ea ba, Garazi, konta iezaguzu zer esan dizuen aurkezpenean –galdetu zion Jaitzek gaiaz aldatzeko saiakera argian.

–Bada, egia esan, ez digute beste munduko ezer konstatu. Egunero lan egiteko ohitura hagitz garrantzitsua dela.

–Guri ere gauza bera esan digute –moztu zion laburki Nikolek.

–Zuzenbideko karrera oso jende gutxik amaitzen duela, eta, beraz, pazientziaz eta gogoz hartzeko, beste erremediorik ez dugula, eta gutxi gorabehera hori. Bestetik ez. A! bai, eta etzi arte ez garela hasiko! Je je! –atera zitzaien barrutik, eta alaitasun keinua jarri zuten.

–Zuek ere ez duzue klaserik bihar? –burura ideia bat zetorkiola sumatu zuten besteek, segundo baten ostean—. Bada, bisitatxo bat egin diezaiokegu Daneli Gasteiza, ezta? Oraintxe iritsi zait Danelen mezu bat, asper-asper eginda omen dago. Ez dela aurkezpenera garaiz iritsi eta ikasle egoitzarako bidean omen da. Mezuan jarri didanez, berak ere bihar ez du klaserik. Zer diozue? –esan zuten Elak, segapotoa esku artean zuela.

–Ni gustura joango nintzateke –aipatu zuen Jaitzek.

–Ni ere bai –Nikolek.

–Beno, nik ez dut gogo handirik, hondartzara joateko azken eguna aprobetxatu nahiko nuke, baina ez da aukera txarra izango Gasteiza joatea –ideia barneratzeko gora begiratu ondoren—. Ongi da, ni ere joango naiz –bukatu zuen Garazik, ez oso gogotsu.

–Ongi da, arratsaldean deituko diot Daneli hara goazela esateko. Biziki poztuko da –amaitu zuen Elak.

Goizeko 5:30 ziren Hodeiren lehen lan eguna zen. Batxilergoa juxtu-juxtu gaindituta, aitak lagun baten bitartez lortu zion lanpostua. Gorlizeko industrialdean zegoen armategi batean hasiko zen goiz hartan, eta, dutxan zegoen bitartean konturatu zen une horretan bertan hasi zuela bere bizitzaren aro berri bat. Ikasten jarraitzeak ez zion beste munduko ilusiorik egiten, eta bere hobby gustukoena egiteko aukera gutxi izango luke unibertsitatera joanez gero. Hobbya baino, surfa bere bizitza zela esan zitekeen. Surfari gehienei bezala, surfak guztiz baldintzatzen zuen beren bizitzeko era. Hodeiren ametsa, dirua lehenbailehen irabazi, autoa erosi eta olatu bikainak zeuden txokoetara askatasun osoz joatea zen, inoren menpe egon gabe. Halatan, bere ametsa lortzeko esperantzarekin, bere adineko mutil koskor batentzat dirua erruz irabazteko aukera ez zuen galdu nahi izan; horregatik onartu zuen bere aitak eginiko eskaintza. Bazekien lana ere erruz egin beharko zuela, baina autoak, surfean aritzeko taulak eta olatuek beharrezkoa zitzaion indarra ematen zioten.

Xaboa buruan zuela, ohartu zen jadanik 5:39 zirela eta, hortaz, berandutu egin zitzaiola, olatuak, autoa eta antzerakoetan pentsatzen ibiltzeagatik. Buruko xaboa kendu,

lehortu eta gosaria ahora sartuta atera zen etxeko ateari sekulako kolpea emanaz. 15 minutuko bidea zuen lantegiraino, eta ordulariak 5:45 zirela aipatzen zuenez, korrika joatea erabaki zuen.

Lantegira iritsi, eta beldurrez begiratu zuen ordularia, ez baitzuen lehen egunean berandu iritsi nahi. Ez zen bera bezalako mutil serio batentzat hasiera ona izango. Sekulako lasaitua hartu zuen 5:55 zirela ikusi zuenean. Eskuan zituen madalenak hartu, eta astiro-astiro ahoratu zituen. Azkeneko apurrak jaten ari zen horretan iritsi zen auto handi batean lantegiko nagusia.

–Egunon Hodei! –esan zion bizkarrean txaloa emanaz neurritz kanpoko energiarekin.

–Egunon bai –erantzun zion katuak mihia lapurtu ziolakoan.

Nagusiari bere bulegora jarraitu zion, hark eginiko keinuari so eginez. Atea itxi, eta mahai nahasi eta handi baten aurrean zegoen aulki kaxkar batean eseri zen, nahi gabeko beldur itxura erakutsiz.

–Lasai motel! –esan zion nagusiak ordu horietan normala ez zen energiagaz–. Badakit zure lehen egunean urduri egon zaitezkeela, baina bihartik aurrera etxeko zuloan bezala sentituko zara, eta ez duzu inolako arazorik izango. Zure aitak esan didanaren arabera, zuk dirua irabazi nahi duzu autoa erosteko. Badakizu, hemen, dirua, lan eginez gero noski, barra-barra irabazi dezakezula, baina horrek bere zergatia du. Hau armategi bat da, eta langileen segurtasuna oinarritzkoa da. Horregatik, kontuan eduki beharreko lehen

gauza zera da. Beti! Armak arriskutik kanpo daudela ziurtatuko duzu. Hau da, ezin izango duzu lantegitik armarik atera, ezin izango duzu inolako frogarik egin, ezin izango duzu arriskutsua izan daitekeen mugimendurik edo ekin-tzarik egin, ezer ere ez. Ados? Filmetan ederki asko ikus daitezke arma baten zarata, funtzionamendua, ondorioak eta bestelakoak. Beraz, kontuz ibili! –hatza altxatuz, modu mehatxagarrian–. Ulertu duzu? Orain, denborarik galdu gabe, har ezazu aldagelan dagoen arropa, eta segi Joxe Antoniorenara, berak azalduko dizu-eta zer egin behar duzun. Ongi da? –Hodeik buruarekin baiezkoa ematen ziola ikustean, besoa altxa eta ateko bidea erakutsi zion, aurpegiaren irribarre deserosoa, modu behartuan jarrita.

Aldagelarako bidean, eskailerak kontu handiz jaisten zituen bitartean, entzundakoak entzun ondoren, lehen eguna izateak eragin zion berezko estutasuna, nagusiak emandako hitzaldi laburrari esker, beste mota bateko urduritasun larriago bat izatera pasa zen. Halaber, osterantzean hartuko zituen olatuen irudikapenak beldur hori gainditzera eramane zion aldagelako atea ireki baino lehen.

Jaitzek bere osabak oparitutako 3 ateko *opel corsa* zaharra martxan jarri zuen. Alboan Ela eseri zen, eta atzean Nikole eta Garazi. Gasteiza bidean jarri ziren berehala. Gorlizetik 9:30ean abiatu ziren, 11:00etan iristeko asmoz. Goiz zen,

baina ilusioz beterik zihoan *corsa* zaharra. Danel Gasteizen zegoen bere lagunak bisita irrikaz itxaroten. Aurreko egunean izandako albiste on bakarra hura izan zen, bere lagunak bisitan joango zitzaizkiola alegia. Astearte horretan klaserik ez izateak ere ez zion askorik alaitu, izan ere, berak farmaziako fakultatea eta karreraren nondik norakoak ahal bezain pronto ezagutu nahi zituen, eta, hortaz, bakarrik egoteko beste egun bat izateak ez zion sobera lagundu.

Goizeko 11:02an entzun zuen bere lagunak iritsi zirela adierazten zuen mugikorreko dei galdua. Kaleko zapatak bizkor jarri, eta ziztu bizian jaitsi zen egoitzako sarrerara. Bertan zeuden, Jaitz, Nikole, Garazi eta bere Ela maitea. Udako lehen festetan izan zuten elkar ondo baino hobeto ezagutzeko aukera, nahiz eta txiki-txikitatik seiko talde berean aritu. Udako 3 hilabeteak igaro zituzten elkarrekin, maitemindutako bi gazteen moduan. Orain, berriaz, udazkena ate joka eta bata Gorlizen eta bestea Gasteizen, urte guztia inor ezagutu gabe jardungo zuelakoan zegoen Gasteiz bezalako hiri batean. Hala, inoiz baino sentiberago zegoen Danel. Ez hainbeste, Ela. Izan ere, Leioako campusera koadrilako 3 kideekin joango zen egunero, *corsa* zaharrean. Gainerakoan, klasean ere, bere bi lagun handirekin joateko aukera zuen. Danel asteburuetan ikusiko zuen, eta, bere ohiko baikortasunaren ondorio, oso bestelako ikuspuntua zuen.

Aitzitik, egun handia zen hura, bere lagunak bisitan etorri baitziren, eta, beraz, eguzkiak eskainitako eguna aprobeztatzeko parada bikaina zen. Bere logela erakutsi,

sukalde eta guzti, eta Gasteizko kaxko zaharrera joan ziren. Aurreko arratsaldea Danelek inguru hura ezagutzen eman zuen, eta bere lagunak etortzeko asmoa zutela jakitean, tabernak *fitxatzen* aritu zen. 7 taberna, *Suso*, *Hala bedi* eta beste hainbat ostatu bisitatu zituzten.

Bazkaltzeko garaian, 7ra joatea erabaki zuten. Kostata baina lortu zuten mahai bat, eta ogitartekoak aukeratzeko jardun zuten denbora luzez. Aukeraketa prozesua luzea eta gogorra izan arren, azkeneko emaitza txit sinplea eta halakoetan ohikoa izan zen. Denek ogitarteko bera aukeratu zutela alegia, denek *pollo completo* eskatu zuten. Edaria aukeratzeko prozesua ere, antzeratsua izan zen. Danel, Garazi, Jaitz eta Elak *coca-cola* eta Nikolek ura. Gauzak horrela, Jaitz komunera joan zen, aurretik edandako guztiari irtenbide bat emateko asmoz. Garazi eta Nikole, zerbitzaria galanta zela aprobetxatuz, barrara gerturatu ziren, ogitartekoak eta edariak eskatzera.

Danel eta Ela bakarrik geratu ziren mahaietan, eta beren intimitate garaia zela sumatu zuten, berehala hasi ziren hizketan musu goxo bat eman ostean.

–Zer gertatzen zaizu Danel? Ez zara pozten gu hemen ikustez? –hasi zen Ela.

–Ez, ondo nago, baina triste xamar nabil Ela, ez dut lagunik, bakar-bakarrik nago Gasteizen, zuek denak hagitz gustura zabilzate Leioan, eta gainera ez dut zurekin denbora tarte ziztrin bat izateko aukerarik izango.

–Lasai motel, lehen eguna eta jada lagunak ate joka nahi dituzu ala? Zu lasai egon, asteburuetan inoiz baino

gogo handiagoz egongo gara elkarrekin, eta, Jaitzek gida-
tzeko baimena atera berri duenez, mila lekutara joango
gara. Plan zoragarriak egingo ditugu, eta, gainera, ahal du-
dan guztietan hona etorriko naiz bisitan. Gainera, bakarrik
zaude zure logela eder horretan... –jarraitu zuen Elak,
dir-dir egiten zizkion begiekin begirada xamur eta aldi be-
rean lizun batekin.

–Ia! Hori orain esaten duzu, gero asteak aurrera joan
ahala, ez zara nirekin akordatu ere egingo...

–Beno e! –moztu zion Elak, ozen–. Zergatik diozu
hori? Ez zara nitaz fio! Hitz egingo dugu beste momentu
batean –bukatutzat eman zuen Elak elkarrizketa, aizkora
zorroztuak egurrean egiten duen moduan.

Bere bizitzako segundorik luzeenak izan zirela naba-
ritu zuen Danelek, hitz horiek entzun eta Nikolek *coca-co-
lak* ekartzen zituen horretan. Bere ohiko ezkortasunak Ela
haserretzeraino eramán zion, eta hala, aurreko eguna baino
okerragoa izan zitekeela sentitu zuen une batez. Jakinez
gero, isilik geratuko litzateke, eta Elak esandakoak bere bar-
neko poza pittin bat handituko zuelakoan geratu zen bere
coca-colari zuhur begira.

Bazkari ederra egin ondoren, Gasteizko Andre Mari
Zuri entzutetsua ezagutzera joan ziren. Bertako lorategien
inguruan ibili ziren, *TAUk* tituluren bat irabazten zue-
nean plaza hura lepo-lepo betetzen zela aipatzen zuten bi-
tartean. Gerora, Floridako parkean paseotxo bat eman zu-
ten, txoko guztiak behatuz. Legebiltzarra ezagutzeko
parada izan zuten, ertzainez inguratua zegoen eraikina.

Konturatzera, arratsaldeko 5:30 ziren. Gorlizeko itzulerara gogorra egingo zitzaielakoan, *corsa* zaharra lehenbait lehen hartu, eta etxera bidean jarri ziren. Ela eta Danelen arteko komunikazioa bazkal aurreko elkarrizketa labur baina mamitsu horretan amaitu zen. Ez zioten elkarri begirada bat ere eskaini, Elak batez ere, bere haserrea erakutsiz. Ohiko musuaren aurretik, Elak aipamen txiki bat egin zion:

–Ostiralean hitz egingo dugu –labur eta zuzen.

Danelek emeki burua jaitsi zuen, ideia ona zela onartuz. Agurtzeko momentuan, musu lehor eta xume batekin agur egun zioten elkarri.

Ostirala iritsi zen. Ela, Garazi, Nikole, Danel eta Jaitz betiko tabernan zeuden, *Iratxon*, betiko txokoan, azkeneko mahaian, betikoa edaten. Danel eta Elak garagardo fresko bana edaten zuten bitartean, Nikole, Garazi eta Jaitzek *coca-cola* edaten jardun zuten. Betiko legez, Hodei beranduago iritsi zen, izan ere, lanetik korrika bizian ateratzen zen arratsaldeko azken olatuak hartzeko asmoz. Hartara, olatu batzuekin nahikoa disfrutatu ondoren, dutxa bero bat hartu, eta tabernara joan ohi zen. Egari zor, beti geratzen zitzaion beste olatu on bat hartzeko gogoan, *azkenekoa*. Baina *azkeneko* olatutik jaisteko momentuan bururatzten zitzaion aurreko nahi berbera.